

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Lanpostuen zerrenda aldatzea

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoaren ildo-tik, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 1eko bilkuran onetsitako lanpostu zerrendaren aldakuntza partzialaren berri ematen da; aldaketak Herritarren Segurtasunaren Sailari eragiten dio, eta horiek aldatzeko arrazoa izan da, Euskal Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua Arautzen duen 86/1997 Dekretua betetzeko, udaltzain postuei hizkuntza-eskakizuna ezarri zaiela eta titulazioak indarrean dagoen hezkuntza-sistemara egokitu direla.

Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez arrazionalizatu eta antolatu behar dituzte barne egiturak, bai eta langileen beharrak zehaztu eta lanpostuak betetzeko baldintzak ezarri zein lanpostuak sailkatu ere.

Halaber, honakoak ezartzen ditu: lanpostu bakoitzerako izena, zein sailari atxikitzen zaion, dedikazioaren erregimena, lanpostuan jarduteko eskatzen diren betebeharrak, taldea, eskala eta azpi-eskala, destino osagarriaren maila, hornitzeko sistema eta berariazko osagarria.

Zentzu horretan, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateratua onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan xedatzen duenaren arabera, herri administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak.

Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 18.1 artikuluan, berriz, jasota dago "lanpostu-zerrenden bitartez sortu, aldatu edo deuseztatuko direla lanpostuak".

39 udaltzain lanposturi lotutako lan-eskaintza publikoaren prozesurako beharrezkoa da lanpostu-zerrenda aldatzea, eta aldaketa horrek dakar 39 lanpostuetako 13ri derrigortasun-data esleitzea, Euskal Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua Arautzen duen 86/1997 Dekretua betetzeko, eta udaltzain postuetarako eskatzen diren titulazioak indarrean dagoen hezkuntza-sistemara egokitzea.

Ildo horretan, aipatutako Dekretuaren 9. artikulua dio hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data herri-administrazio bakoitzeko lanpostu-zerrendetan nahitaez eman beharreko zehaztapenetan agertuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 15. eta 97. artikuluetan ezarritako jarraibideen arabera. Gainera, 10. artikuluan xedatzen du sail batean edo zuzendaritza-zentro batean lanpostu berari dagozkion bi dotazio edo gehiago daudenean, lanpostu-zerrendetan bereizita eta banan-banan agertuko dira, bakoitzari izendatutako hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data ondo zehaztuta.

Proposatutako aldaketen helburua da zerbitzuak eraginkortasun handiagoz ematea; Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak 2019ko otsailaren 15ean horien aldeko txostenak eman zituen —erantsita doaz—, eta sailen barne-antolakuntzako beharrei doitzen zaizkie.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatu zaio proposatutako derrigortasunei buruzko txostena eman dezala.

Funtzio Publikoaren Saileko Administrazioa eta Ekonomia Kudeaketaren Zerbitzutik eta Udalaren esku-hartze organoaren titularrarengandik proposamenaren aldeko txostenak jaso direnez, egokitzen jotzen da erabaki-proposamen honetan oraingo Lanpostu Zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, bilera egin da Udaleko langileen batzordearekin 2019ko otsailaren 15ean.

Erabaki da

1. - Indarrean dagoen lanpostu zerrendan aldaketa partziala egitea, zeinak 13 udaltzain lanposturi eragingo dien, honela:

— Derrigortasun data ezarriko zaie (2019ko martxoaren 1a).

2 - Titulazio hauek ezarriko dira udaltzain lanpostuetarako (lanpostu-kodea: 8013):

— C1 taldean: Z00 Batxilergoa, Z02 Goi Mailako Lanbide Heziketa.

— C2 taldean: Z03 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Z04 Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

3 - Aldaketa hori 2019ko martxoaren 1ean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 4an

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA